

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joseba Goñi Galarraga

*Errenteria,
Gipuzkoa
(1935)*

Aurkibidea



Biografia



Errenteriako Santa Klara kalean jaio zen Joseba Goñi. Urte askoan Goiko Kalean bizi izan zen familia osoa. Gurasoak Errenteriakoak zituen: aitak Banco San Sebastianen egiten zuen lan; 36an Bilbon egon zen gerran, hiria erori zen arte; herrira itzulitakoan, lana galdu zuen. Fraideekin ikasi zuen Josebak hamabi urte bete arte. 1947an komunioa egin behar zuela eta, fraideetatik atera eta hiru hilabetez Rosaren eskolara bidali zuen aitak dotrina euskaraz ikas zezan. Fraideen ondoren, Fabrika Haundian (Lino fabrikan) hasi zen lanean. Lantegitik ateratakoan, arte- eta lanbide-eskolara joaten zen Donostiara; han merkataritza-ikasketak egin zituen. Geroago, Saturrarango seminaria joateko hautua egin zuen. 1960an apaiz egin zen. Ordutik hainbat zeregin bete izan ditu: parroquia bateko apaiz izan da, hiru urte igaro zituen Erroman... Baina urte gehien irakaskuntzara bideratu ditu, bai Gasteizen, baita Donostiako EUTGn historiako irakasle ere. Jarduera horrekin batera, Errenterian apaiz izan da. Errenteriako Santa Klara kalean, jaiotako toki berean, bizi izan da.

Zintak

ERR-023

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Zabala, Edurne
- **Data:** 2010-04-23
- **Iraupena:** 140 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Niessenen jarrera gerra ostean

- **Erref:** ERR-023/005
- **Iraupena:** 0:06:19. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:20:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945)
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Frankismoaren garaian, Erreterriako fabriketako nagusiek izandako jokaerari buruz hitz egiten du: Niessen zen Erreterriako fabrika handienetarikoa; jabea alemana zen, I. Mundu Gerran Alemaniatik ihes egindakoa. Wilhelm Niessenek abertzale ugari babestu zituen Erreterrian. Asteburu batzuetan soldadu alemaniarrek Hendaiatik Donostiara joaten ziren arratsalde pasa, eta zigarroak banatzen ibiltzen ziren: behin Erreterriako Bar Versallesko kartela puskatu omen zuten soldaduek, I. Mundu Gerra galdu zuteneko oroitzapena ekartzen baitzien.

2. Gerran Erreterriatik alde egin beharra

- **Erref:** ERR-023/008
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:25:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra hasi baino urtebete lehenago jaio zen Joseba. Gerran etxeko leiho bat puskatu zieten bala batekin eta 30 urtean ez zuten aldatu kristal hura. Gerran etxea nola zaintzen zuten aipatzen du. Gerra bukaeran, Donostiara joan ziren amaren lehengusu baten etxera. Erreterriatik jende askok egin zuen alde gerra garaian.

3. Oiloak balkoian eta tresnak ukuiluan

- **Erref:** ERR-023/009
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:27:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

Etxe azpian ukuilua zeukaten eta han sagardo-barrika izaten zuten. Ukuilu hura apaizarena zen, baina auzo guztiari uzten zion erabiltzen, bakoitzari

tartetxo bat emanez. Ukuilu hartan ez zuten animaliarik edukitzen. Ukuilu atzean, baratzea zegoen. Lehen balkoietan oiloak eta oilandak haztea oso ohikoa zen gerra ostean.

4. Errenteriako feriaren bizia eta amaren joan-etorriak

- **Erref:** ERR-023/010
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:32:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ama urte askoan joan zen trenez Tolosara eta Ordiziara jeneroa erostera, gero hura Errenteriako plazan saltzeko; zer jenero ekartzen zuen aipatzen du. Amarentzat gaztarik onenak Aguraingoak izaten ziren. Errenteriako plazan bizi handia egoten zen feria zen egunetan; baimen berezia zeukan herriak feria haiek ospatzeko, baina denborarekin feria egiteko ohitura galtzen joan zen.</p>

5. Koldo Mitxelena gertutik ezagututakoa

- **Erref:** ERR-023/012
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:33:22. **Bukatu:** 00:38:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Josebaren aitak eta Koldo Mitxelenak harreman handia izan zuten. Koldo Mitxelenaren bizitzari buruz hitz egiten du: gerra garaian 21 urte zituen eta kartzelan egon zen 7 urtez. Kartzelan familiartekoren bat zuten Errenteriako familien artean, denek irakurtzen zituzten kartzelatik iritsitako gutunak. Koldo Mitxelenaren erretratuak iristen zirenean, ez zuten uste bizirik aterako zenik kartzelatik. Koldo Mitxelenaren ama oso hiltun ona zen. Koldo kartzelatik atera zenean, Madrila joan zen ikasketak egitera eta bere konpromiso politikoa jarraitzera. Han berriro espetxeratu zuten, eta han zegoela hil zitzaion ama.</p>

Transkripzioa

- Osea, Koldo Mitxelenaren situazioan jarri egin behar da. Badakizu, 15ean jaio zen, e, 1915ean. Karo, bera jaio zen, dakizun bezela, bueno, hemendik atera eta malda jeisteko kale hortan. Bueno. Eta nere aitta, berriz, bizi zan —esan dizut— palazioa, hemendik eskubitara daon etxe haundi hortan. Eta, jakina, nere aittak bere aitta asko ezagutu zuen. Eta bere aittan lagunak. Eta Koldo, 15ian jaiua, karo, gerra-garaian zittuan 21 urte. [Dakizun] bezela, boluntario gerrara jun zien. Gero kartzelatik etorri 42yan, noski, e? Zazpi urte izandu [...], uste dut izandu zela; danera sei, aber, sei, lau... bai zazpiren bat urte kartzelan. Eta ni bizi nitzan oso mundu abertzale inguruan. Zergatik? Gure bost bizitzako etxeetan, bi bizitzetan

bazeukaten presoa Burgosen. Eta Koldon ama alarguna bizi zan bakarrik hemen, etxe hau ez, hurrengo hartan. Eta ni ume koskorra, bost, sei, zazpi urtekoa. Ba, Burgostik karta bat iristen zanean, Erreterian jiratzen zun famili guztietatik karta. Eta argazkia baldin bazan, oaindik gehiago, ezta? Eta ni beti gogoratzen naiz...

- Baiña famili batzuen artean, ezta?

- A! Karo! Kartzelan zeudenen artean, kartzelan zeudenen familien artean, klaro. Kartzelan zeuden familien artean.

- Abertzaleen artean?

- Abertzaleen artean ez, baizik kartzelan zeudenak. Etxe batetik bestea, ba, amak ikusi nahi zuelako erretratoa. Eta beti nik daukaten lehenengo erretratoa, eta ni ume koskorra, seguraski punttan jarrita “aber, hau zein da?” ta “hau, beste hau, zein da?” ta “hau bestia da” ta “hau bestia da” ta... Beti, jo, Koldon erretratoak ikusita beti esaten zuen: “Ez dute uste kartzelatik bizirik aterako danik”. Jo, Koldon planta... Badira erretrato hoiek. Erretrato hoiek edozeiñek [...] ahal izango dittu, nik ez, gure aittak ez zittuan baiño. Koldon planta. Baiño ni oso ondo gogoratzen naiz, eta ibili izana, ba, etxe bateko karta Koldon amari ekartzea, hementxe bertan, etxe hontan. Ni Santa Klarako ume koskorra, zazpi-zortzi urtekoa, eta gure etxen bi ziran, e! Biak hillak dira. Errazkin, Eugenio Errazkin, txistulari... gaiñera Erreteriko Bandako txistulari silbotea zena. Eta bestia...

- Nik ez dakit garai hartan Koldo Mitxelena gero hizkuntzalari ta jakintsu eta, bueno, ba, asko aipatua izan da, ezta? Euskeraren gaiaren inguruan eta...

- A! Klaro, klaro.

- Garai hartan, gerra garai hartan ere hola bizi zenuten? Bea hola zan ere?

- Bai. Koldo... Klaro, gure... nere aittak bere aitta ezagutu zuelako eta ama alarguna bakarrik bizi zalako, bai, inguratua, ama oso... nik uste dut... ez dakit behar zen aña, baiño ama oso inguratua egondu zen Erreteriko zenbait famili abertzale... Joxepiñaxi Joxepiñaxi zen, eta bera zan oso hiltun ona. Koldon gatza guztiya amangandik; nik aitta ez nuen ezagutu. Eta, klaro, gero kartzelatik Koldo etorri zanian, badakizu, Koldok apustu haundiya egin zun politika aldetik, badakizu. 43an honea etorri ziran beste zenbait lagun. Denak ez ziran Erreterian bizitzen geldittu. Batzuek lan billa beste nunbaittea jun ziran. Gure bizilagun bat Tudelaa jun zan bizitzea eta familia [...], eta Koldo Madridera jun zen. Karo, ordun esaten zan Koldo jun zala ikasketak egitea, eta egia da. Ordun egin zuen “Filosofía y Letras Clásicas” Madriden. Baiño, karo, oain dakigu kartzelatik konpromisoakin ateria zala, Ajuriagerran kontsejutzaille edo sekretario bezela. Eta Madridera politika jarraitzea jun zan. Eta han anarkistekin-eta harremanetan berrriro giltzapetua izandu zen bi urtean. Eta, karo, bitartean ama bakarrik. Eta Koldo Madriden zegoela hil zitzaion ama. Eta ez zuen behin ere bere burua konformatzerik izan...

- Amaren ondoan ez egon izana.

- Amaren ondoan ez egon izana. Koldok hori...

- Oso barruan...

- Bai, oso barruan zeukan. Eta hori nik dakit, ba, gure aittari askotan esan ziolako. Eta ordun, zer gertatu zan? Gero Koldo oaindikan´e gaizki, badakizu, Erreteriko alkateak urteetan ukatu egin [zioan] “el certificado de buena conducta”, hau da, ez da lapurra, ez da... ez du iñor menperatu... baiño ez zion eman nahi.

6. Koldo Mitxelenaren eta Josebaren aitaren arteko harremana

- **Erref:** ERR-023/014
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:42:17. **Bukatu:** 00:45:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Koldo Mitxelenak askotan grabatu zuen Josebaren aita tesia egiten ari zen bitartean. Koldoren familiaren jatorriari buruz hitz egiten du. Koldok 15 urte zituela galdu zuen aita. Aita Erretereriako lehenengotako abertzalea omen zen. Koldo ere politikan sartu zen errepublika garaian, baina aitaren garaitik hutsune bat zuen, eta Josebaren aitaren bidez saiatzen zen hutsune hori betetzen.</p>

Transkripzioa

- Eta ze pasa zan zure aita... ze ibiltzen zan Erretereriko jendiari grabaketak egiten?
- Bai, nere aittari behintzat badakit grabaketak egin zizkiola zenbait gauzetan. Eta gehien euskera kontuan zan, e? Jakin nahi zun aber hitz hau entzuna Erretererin iñoiz izandu zan. Eta berak tesian garbi esaten du: “Por lo que yo sé mi tesis está fundada en el euskera de mi pueblo”. Onbre, nik uste dut gehixko dela esatea, zegatik Koldok hori aberastu zuen... bueno!
- Eta zinta hoiekin ze pasa zan?
- Ba, ez dut behin ere jakin izandu. Nik ez nuan... andrea... emazteak eskeiñi zizkenean, ba... Egia esan, semea oso mutil jatorra da. Bueno, mutil jatorra, ya gizon egiña da Rafael, ezta? Rafael zen aittona. Baiño gure aittak... gure aitta Koldok gehien ibiltzen zuan honetxegatik: Koldok esaten zun “nere aitta badakit abertzalia izandu zala”. Erretererin izandu zan lehenengo abertzaletarra. Igeldon jaiua zen aitta. Ama, berriz, badakizu, Iparraldekoa zela, Elissalt, bi s-kin, Elissalt. Erretereriko fabrika haundira lanea etorritako [egurleak] edo emen zian teknikoak, Koldon aittona. Eta... Bueno, zerekin ari giñan? A, bueno, karo. Gure aittak, karo... Koldo geldittu zan hamabost urtetan aittik gabe. Eta, klaro, gero bera politikan sartu zan republika garaian. Eta hor zeukan hogeitaz urteko hutsune bat aitta hildakotik. Eta, karo, gure aitta ikusten zun zubi bezela; ez zan bere aittan edadekoa, gazteagoa zan, baiño ondo Erretereriko nazionalisten arteko hasarreak eta eztabaidak eta... hortarako ibiltzen zun gehien. Osea, bete nahi zun bere bizitzako hutsune hori. Eta, karo, gure aitta memori onekoa zen, eta Campionen Erretererian egindako testu bat bada, oan badabil leku guztietan.
- Campion etorri zan Batzokiko inauguraziora.
- Batzokiko inaugurapenera. Eta gure aittak zeuzkan sei folleto gordiak. Eta Koldok nola hartu zittuen, gustora asko!
- Zer zeon folleto haietan ba?
- Erretereriko hemen, este... topoko maldan egindako Batzokiko Campionen diskursoa, publikatua inprentan. Eta Koldok milla aldiz entzuna. Eta gure aittak gerran pasa eta gerra ondoren eta Bilbotik etorri ta beldur pixkatekin, baiño gordiak zeuzkan sei folleto.

7. Aita oso abertzalea zen

- **Erref:** ERR-023/015
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:45:07. **Bukatu:** 00:47:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:

<p>Josebaren aita oso abertzalea zen eta nazionalismoaren historian garrantzitsuak izandako pertsonak miresten zituen. Josebaren aitak Euzkadi egunkari abertzalea irakurtzen zuen; baina ez zuen inoiz kargu politikorik izan.</p>

Transkripzioa

- Eta zure aita oso nazionalista izango zan, ez?
- Bai, bai, gure aitta... Nik umetan ezagutu dittut etxean, alde batean Aita Santua eta bestian Sabino. Eta gero `Kizkitza´.
- `Kizkitza´?
- `Kizkitza´ izandu zen oso... PNVko gizonik inportanteena Sabin hil ta gero. Beraz, `Kizkitza´ izandu zan Euzkadi egunkaria sortu zuena; bueno, sortu zuena, zuzendari izandu zena. Eta nahiz bera donostiarra izan, Sabinon laguna izana. Eta, bueno, nik uste dut, argitaratuta dittuzu Sabinekin eta `Kizkitza´k izandutako elkarrizketak ez, baizik eskutitzak publikatuak daude. Eta `Kizkitza´ izandu zen Euzkadi-ko egunkariaren buru sortu zenetik "quince", "dieciséis"... ba, iya hogeitaz urte. Zegatik Kizkitzak suete bat izandu zun: gerra hasita, bi hilabetera hil zan Bilbon. Ya minbiziakin zegoen, ya edadeko gizona. Baiña `Kizkitza´ familiz donostiarra da.
- Eta zure aitak hoik denak irakurtzen zittun.
- A, klaro... A, bai, bai, bai, klaro. Gure aitta zen, soldaduskan Bilbon zegola, 1914-18, hor, urte hoietan, Vitorin Euzkadi erosten zuna eta gero Erreterin abertzaleak Bilbotik... eguneko arratsaldera arte ez zitzairen iristen eguneko Euzkadi. Euzkadi, gure aittak-eta Euzkadi irakurtzen zuten.
- Zure aitak ardura zun hemengo [...] alderdian edo...?
- Bai, Erreteriko... bueno, Erreteriko gizona zen.
- Ya. Baiña agian zinegotzi bezela egongo zan [...]?
- Ez, ez, ez, iñoiz ez. Iñoiz ez. Ez zuan iñoiz kargu politiko bat izan. Ezta Batzokian ere. Ezta Batzokian ere.
- Baiña Batzokian ibiltzen zan, ez?
- A! Bai, Batzokiko gizona zen eta jende guztik abertzaletzat zeukan, eta gure aitta hala izandu da, abertzale. Ta gero, gerra ondoren, zenbait gauzeta Felipe Lizaso eta zenbait jende gure aittana etorri izandu zan "Hau, gogoratzen al zea zu hau nola...?" ta gure aittak... Abertzale munduan bizi izana zen, erabat murgildua, baiña ez zuan iñoiz kargurik izandu. Ez zuan behin ere... ez dakit nik, edo aukeratu ez zuelako edo berak... Nik uste dut berak nahi izan ez zuelako. Baiñon hori ez dizut esango behin ere, gure aittak iñoiz kargu bati ezetzik esan ote zion, hori ez.

8. Aita gerran Bilbon; itzulitakoan panorama zaila Erreterian

- **Erref:** ERR-023/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:47:57. **Bukatu:** 00:49:17

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra garaian, Josebaren aitak badaezpada Errenteriatik alde egin zuen. Bilbo erori zen arte egon zen han, anaiarekin eta koinatuarekin batera. Errenteriara itzuli zenean lana galdu zuen; denbora batez amak tratutik lortutako diruari esker atera ziren aurrera. Zenbait lagun karlistaren laguntza ere ba omen zuen aitak.</p>

Transkripzioa

- Aittak kontu hori ez zuan behin ere aittatu izan. Bilboko kontuak bai, eta Bilbora [jun zen].

- Hori esan nahi dizut. Gerra garaian, Bilbora jun zanian...

- Bai, bai, gure aittak-eta garbi zeukaten Errenteritik badaezpada ´re jun egin behar zuela.

- Batez ere horregatik joan zan, edo...?

- Eta jun zan anaia, koiñadua eta beste zenbait jende Errenteriko, zenbait jende Errenteriko.

- Zenbat denboraz egondu zan Bilbon?

- Bueno, ba, Bilbo erori zan arte. Eta ez zuen denak aukera bera egin. Hiru koiñatu jun ziren eta bakoitzak aukera bat hartu zuen. Gure aittaren aukera izandu zan Bilbon geldittu eta handik hillabete batera Bilbotik etxera etorri. Bueno, detenitzeko arriskua. Ta ez zitzaioan... bueno, poliziak deittu ta hori, zerbait egin eta... lana galdu, lana galdu. Bi urteak, bi urte-edo uste dut aitta egondu zala, hori behiñipein berari ez nion entzun izan, ez zuan behin ere finkatu zenbateaiñoko... Karo, gure etxen ordun salbamena zegoen ama tratura juten zala ta amak irabazten zuanakin bizittu giñan. Bizittu omen giñan! Ni orduan...

- Baiño honea etorrita ere beldurraz ibiliko zan, ez?

- A! Bueno, pentsatzen dut. Eta nik uste dut jende laguntza ere izandu zuen, karlisten laguntza ere izandu zuen; bai, zenbait lagun karlistak zienak eta.

9. Errepublikara garaiko alkateari gerra ostean emandako babesa

- **Erref:** ERR-023/017
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:49:17. **Bukatu:** 00:51:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak

Laburpena:

<p>Errenterian errepublikak iraun zuen bost urteetan Paulino Garcia errepublikanoa izan zen alkate. Denbora batez kanpoan egon bazen ere, laster itzuli zen herrira eta bere jostundegiarekin jarraitu zuen normal-normal. Garciak babes handia izan zuen herrian gerra ostean.</p>

Transkripzioa

- Ze hemen karlistak zeuden, “Centro Republicano” ere bazegon...
- Bueno, bai, republikanoak... Bueno, Republika... [...] gauzik iñok esplikatu ezin duana da nola Republika guztiko urteetan alkate republikanoa izan eta ezer pasatu ez izana horri. Eta nik ez dakit gerra-ondoren zenbat denbora egondu zan kanpoan, baiñan gero etorrita ´re bere sastreriya zeukan calle Biteri kalean. Calle Biteri kalean, Garcia.
- Zenek?
- Alkatea izandu zanak Republika garaian. Osea, bost... Osea... Bueno, alkate republikanoa zergatik? Ba, nazionalistak eta karlistak konpondu eziñean, nazionalistak nahiago izandu zuen alkate republikanoa. Eta egondu zan Garcia. Eta gizon horretaz ze gutxi [esan...]. Eta gero, gaiñera, hori nik umetan... gu umek giñaneako ya Erreteria itzulia zen, eta iñork — nik beti galdetu izandu dut— iñork ba al daki zer babes haundi izandu zuan Paulino Garciak? Oso gizon jatorra, e. Paulino Garciak ze babes izandu zuan gerra ostean Erreterian! Nik uste, hain azkar etorri, ta berriro bere sastreria, calle Biterin zeukana, bere langille eta bere...
- Martxan segitu zun?
- Bere negozioakin ta bere seme-alabak eta danak ondo atera zirenak eta. Paulino Garciak noren babesa izandu zuan karlisten munduan? Baiño norbaittek, dudarik gabe, babestu zun Paulino Garcia. E? Zegatik ez zan edozer gauza, e? Alkate, bost urteetan bera izandu zen alkate.

10. Gerrako erabakien ondorioak

- **Erref:** ERR-023/019
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:51:22. **Bukatu:** 00:53:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Aitaren anaia bat ere Bilbora joan zen harekin, baina gero Frantziara ihes egitea erabaki zuen. Gerra ostean, ordea, erabaki hark ondorio latzak ekarri zizkion.</p>

Transkripzioa

- Anai bat, berarekin Bilbora junda, Bilbon erabaki zun Frantzira joatea. Zergatik? Ba, bera zen “Funcionario de la Audiencia Provincial de Justicia”. Funtzionarioa. Eta, klaro, Bilbon Euskal Gobernuan segittun sartu zan republikano bezela. Nola esango dugu? “En el cuerpo oficial”, eta soldatakin. Eta gero, Bilbo erortzekoan, esan zuan “Nik nahiago dut Frantzira pasa, Frantzitik Bartzelonara jun; Bartzelonan republika dao. Oaindik beste bi urte eta erdi iraungo du republikak”, eta han berriro funtzionario bihurtu zen. Eta gehien harrek ordaindu behar izandu zun gero hori egiña. Zegatik, gero gerra bukatu eta berriro Frantziatik urtebete “campo de concentración”en pasatu eta Donostira etorri zanian, pentsa — San Martingo jauregiyan, hor zegoen, badakizu, zea, tribunala—, langilleak eta zuzendari zegoenak onartu, ondo onartu zuen, baiñan Madritik handik urte batera etorri zan “la expulsión del cuerpo”. Eta bost umen aitta geldittu zan zerua goian ta lurra behian. Eta gure aitta, berriz, “empresa privada”, bueno, bankuan, ba, bi urteko zigorra. Eta, klaro, gure aitta... Eta

beste koiñadu bat Errenterikoa ere Frantzin bizi izandu zan. Ba, alemanak 41ean sartu ziren eta... bueno, beste lau-bost urte koiñadu batek egin zittuen. Eta, bai, karo, arazo hori familiko arazoa zen, ezta? Gu umetan Donostira juten giñanean izebanea beti, ba, osaba falta zala, osaba falta zala, oaindik Frantzin zegolako. Eta etorri zanean eta nik gauza hoiek ondo gogoratzen dittut. Eta gero, hil zan artean bizi izan zan funtzionario izatea galduta. Ba handik...

- Ez zun berreskuratu.

- Ez, ez zun berreskuratu. Gero, Franco hil ta gero, bere alarguna iya ehun urtekin hil danak berreskuratu dittu berari, alargun bezela, urte guzi hoietan tokatzen zitzaizkionak. Bai.

11. Aitaren irakurzaletasuna

- **Erref:** ERR-023/020
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:53:51. **Bukatu:** 00:58:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Josebaren aitari asko gustatzen zitzaion irakurtzea; garai hartarako, liburutegi ona zeukan etxean. Gerra garaian, ordea, liburu batzuk bota egin zituen beldurragatik; gerora damutu egin zen hori egin izanaz. Hainbat aldizkaritan zegoen harpidetuta eta liburuak normalean Donostian erosten zituen. Aitari asko gustatzen zitzaion Donostiara joatea. Josebak oraindik gordeta dauzka aitaren liburu batzuk altxorrek izango balira bezala.

12. Frantziatik ihes egindako fraideak hemen

- **Erref:** ERR-023/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:58:02. **Bukatu:** 01:00:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Umetan fraideetan ikasi zuen Josebak, dena erdaraz. Fraide haiek Frantziatik ihes egindakoak ziren, eta Gipuzkoan hainbat eskola ireki zituzten.

13. Euskara eta erdara noiz eta norekin

- **Erref:** ERR-023/022
- **Iraupena:** 0:03:33. **Hasi:** 01:00:02. **Bukatu:** 01:03:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

Josebak fraideekin ikasi zuenean, erdaraz ikasi zuen. Komunioa prestatzeko, bi talde zeuden: bata euskarazkoa eta bestea erdarazkoa; baina baserritarrek bakarrik ikasten zuten euskaraz. Jaunartze handia egin behar zuenean, aitak proposatu zien fraideei Josebak euskaraz ikastea dotrina, baina ezetz erantzun zioten; horregatik, Rosa maistrarengana eraman zuen Joseba, eta eskolatik hiru hilabetez atera zuen bitarte horretan. Etxean Josebak beti egin izan du euskaraz, baina kolean erdaraz, baita lagun euskaldunekin ere. Gerora, apaiz zela, Goierriara joateko eskatu zuen, horrela euskara sendotzeko.

14. Fraideen metodologia vs Rosa maistraren metodologia

- **Erref:** ERR-023/024
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:03:41. **Bukatu:** 01:05:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Rosa maistrarekin ikasi zuen Josebak hiru hilabetez, komunio handirako prestatzeko. Han neska-mutilek batera ikasten zuten, eta aldeak zeuden fraideek erabiltzen zuten metodologiarekiko. Errenteriako zenbait familia aberatsetako seme-alabak Donostiara trenez joaten ziren batxilerra fraideekin ikastera.</p>

15. Niessenek Errenteriako fraideengan zuen konfiantza

- **Erref:** ERR-023/025
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:05:01. **Bukatu:** 01:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

<p>Errenteriako fraideen ikastetxea maila onekoa zen garai hartan. Niessen urtero joaten zen zuzendariarengana ikasle onenen izenak eskatzera. Lehen gau-eskolak zeuden oinarrizko eskola bukatutakoan ikasten jarraitu nahi zutenentzat.</p>

16. Errenteriako eta Donostiako ikasketak

- **Erref:** ERR-023/026
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 01:07:10. **Bukatu:** 01:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Josebak 7-12 urte zituen bitartean ikasi zuen Errenteriako fraideekin. Gerora, Donostian 3 urtez ikasi zuen arte- eta lanbide-eskolan.

17. Seminarioan 11 urtez ikasi zuen

- **Erref:** ERR-023/027
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:08:25. **Bukatu:** 01:10:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa

Laburpena:

1960an egin zen apaiz, seminarioan 11 urte egin eta gero. Seminarioan beti erdaraz ikasi izan du. Saturraranen ikasi zuen 1949-1953 bitartean. Zenbait seminario gerra garaian kartzela eta ospitale bilakatu zituztela kontatzen du.

18. Saturraranen euskara asko landu zuten

- **Erref:** ERR-023/028
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:10:54. **Bukatu:** 01:15:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Saturraranen egon zen bitartean, Ondarroarekin harreman handia izan zuen. 2 urtetan ostegun arratsaldetan Resurreccion Maria Azkuek oparitutako euskarazko gramatika ikasten zuten. Euskara asko landu zuten garai haietan.

19. 'Jakin' aldizkaria

- **Erref:** ERR-023/030
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:16:52. **Bukatu:** 01:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

<p>Aita Villasantek Jakin aldizkaria sortu zuen. Lehenengo 20 urteetako ale guztiak gordeta dauzka Josebak.</p>

20. Elizan euskara zaindu izan da

- **Erref:** ERR-023/033

- **Iraupena:** 0:05:46. **Hasi:** 01:21:45. **Bukatu:** 01:27:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Seminarioa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Frankismo garaian euskara debekatuta zegoen. Donostiako seminarioan ostegunetan euskarazko eskolak ematen hasi ziren 50. hamarkada bukaeran. Jesuitak hasi ziren lehenengo aldiz euskara lantzen Comillasen. Prestakuntza handia lortu zuten Comillasen ikasitako apaizek.

21. Kaputxinoak, Ramon Astibia eta euskara

- **Erref:** ERR-023/034
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 01:27:31. **Bukatu:** 01:30:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

<p>Ramon Astibiari buruz hitz egiten du. Nafarroan fraide Kaputxinoak hasi ziren lehen aldiz euskara irakasten Lizarran. Haiei buruz poesiak idatzi zituen Ramon Astibia; gerora, omenaldia egin zitzaion bere jaiotetxean plaka bat jarrita, baina frankismo garaian kenarazi egin zuten. Kaputxinoek euskararengatik arazo ugari izan dituzte historian zehar.</p>

22. Aita bertsozalea

- **Erref:** ERR-023/036
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:31:57. **Bukatu:** 01:34:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Aitak hainbat bertsolari ezagutu zituen, bertsozalea zen, bertso asko zekizkien buruz. Erreterian Makazaga inprenta zegoen: orduko bertsolarien hitzak argitaratzen zituen.

23. Erreterriako bertso-saioak

- **Erref:** ERR-023/037
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:34:43. **Bukatu:** 01:37:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Juanito Zabaleta bertsolaria ezagutu zuen. Festetan bertso-saioak izaten ziren Erreterian; orduan etortzen ziren bertsolarien izenak aipatzen ditu.

24. Madalen kaleko festak

- **Erref:** ERR-023/038
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:37:23. **Bukatu:** 01:38:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Madalen kaleko festak oso garrantzitsuak izaten ziren Erreterian. Orduko giroa nolakoa izaten zen aipatzen du.

25. Espainiako bandera ez jartzeko protesta

- **Erref:** ERR-023/039
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 01:38:31. **Bukatu:** 01:41:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Francoren garaian, debekatua zegoen balkoietan ikurrinak jartzea. XX. gizaldi hasieran, Espainiako bandera ez jartzeagatik, zapi txuri bat jarri zuten, erdian Jesusen Bihotzaren irudia zuena; horrek haserrea ekarri omen zuen karlisten eta nazionalisten artean. Apaiz bat bidali egin zuten Erreteriatik Agurain aldera, abertzalea izateagatik.

26. Erreterriako industriak erakarritako jendea

- **Erref:** ERR-023/040
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:41:16. **Bukatu:** 01:42:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Erreterian beti egon izan da industria asko eta horregatik etorri zen jende asko kanpotik lanera eta bizitzera. Orduan etxe asko egin ziren Erreterian. Emakumeak lanera joateko nola moldatzen ziren azaltzen du.

27. Errenteriako biztanleen gorakada

- **Erref:** ERR-023/041
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 01:42:59. **Bukatu:** 01:46:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

Errenteriak gerra garaian 9.000 biztanle baino gehiago zituen, eta pixkanaka igotzen joan da herriko populazioa. 1965 inguruan, 48.000 ere biztanle izan ziren. Orduko etxeak ordaintzeko kredituek nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

28. Errenteria hirigintza-planik gabe handitu zenekoa

- **Erref:** ERR-023/042
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:46:50. **Bukatu:** 01:48:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Etorkinak Errenteriara etortzen hasi zirenean, asko handitu zen herria; hirigintza-planik ez zen egon orduan eta nola-hala egin ziren etxeak.

29. Apaiztu zenetik egindako lanak

- **Erref:** ERR-023/045
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:57:05. **Bukatu:** 01:59:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

25 urterekin apaiztu zen eta orduan 3 urte pasa zituen Goierriin. Geroago, Madrilan joan zen Historiako doktoregoa egitera. 1967an Erromara joan zen. 1970an Gasteizko eta Donostiako seminarioan eskolak ematen hasi zen. Gerora, Donostiako EUTGn historiako irakasle izan zen. Apaiz-lana Errenterian egin izan du beti. Izandako ikasle batzuei buruz hitz egiten du. 65 urterekin erretiroa hartu zuen.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com